



Higiezinaren Merkatua Euskadin, 2017

Laburpen Txostena

- 1 Testuinguru ekonomiko orokorra
- 2 Euskadiko eraikuntza-jarduera eta etxebizitza-eskaintza
- 3 Euskadiko etxebizitza-premiak eta -eskaria
- 4 Euskadiko higiezinaren eta hipoteka-merkatuaren jarduera
- 5 Etxebizitzaren birgaikuntza
- 6 Finantza-krisiaren inpaktua
- 7 Etxebizitza-politikari lotutako adierazle nagusiak 2017an
- 8 Laburpena eta ondorioak



1. Testuinguru ekonomiko orokorra

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera


5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak


8 laburpena eta ondorioak

Euskadiko merkatu-prezioetako benetako BPGdak eta eraikuntza-sektorearen balio erantsiak aldiari izan duten bilakaera konparatua (urte-arte aldakuntza-tasak). 2008-2017



Iturria: Eustat

Biztanleria landunaren aldakuntza 2008-2017 aldian (urtetik urterako aldakuntza-tasak)



Iturria: Biztanleriaren Jardueraren Araberako Inkesta (BJI). Eustat

- Euskadiko ekonomiak hazkunde-maila nabarmena izan du 2017an ere, eta 2014an abian hasitako susperraldia sendotu du horrela. BPGdak % 3,1 egin du gora 2017an: Euskadiko ekonomiak 2016an izandako pareko hazkunde-tasa, beraz.
- Eraikuntza-sektoreak, bereziki, oso portaera positiboa izan du 2017an; izan ere, gainerako sektoreetan baino nabarmen gehiago hazi da sektorearen jarduera. 2017an, eraikuntza-sektorearen ekoizpena % 4,9 hazi da eta 2016ko hazkunde-tasa (+% 1,6) hirukoiztu ere egin du, hirugarren sektorearen (+% 2,6) eta industria-sektorearen (+% 3,7) gainetik, nabarmen.
- Euskadiko ekonomiaren hazkunde handi horri esker, enplegu sortzeko dinamika positiboari eutsi ahal izan zaio: Euskadiko biztanleria landuna % 1,6 hazi da 2017an, 2016an (+% 1,2) baino lau hamarren gehiago.
- Aitzitik, ez da lortu eraikuntza-sektoreko enplegu-hazkundera suspertzea: 2017an sektoreak % 0,8ko hazkundera baino ez du eduki, 2016an lortutako % 1,3ko hazkunderatik behera. Horiek horrela, 2008ko atzeraldian jasandako enplegu-galeraren zati txiki bat berreskuratzea baizik ez du lortu eraikuntza-sektoreak. 2017an, 2008an baino 35.100 lanpostu gutxiago izan ditu, hau da, % 42,3 gutxiago.

1. Testuinguru ekonomiko orokorra

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jardura

5 etxebizitza birgaikuntza


6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak

8 laburpena eta ondorioak




Eraikuntza-sektorean eta Euskadiko ekonomia osoan biztanleria landunak izan duen aldakuntza garbia 2008-2017 bitartean (okupatutako milaka pertsonak eta aldakuntza-tasa metatuak)



Aldakuntzen %-a


Iturria: Biztanleriaren Jardueraren Araberako Inkesta (BJI). Eustat

Eraikuntza-sektorearen garrantzi erlatiboaren bilakaera Euskadin. 2008-2017



Iturria: Biztanleriaren Jardueraren Araberako Inkesta (BJI). Eustat

Higiezin merkatuaren dinamismo-indizearen bilakaera. 2004-2017¹



Iturria: Higiezin eskaintza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.

- Higiezin merkatuaren dinamismo-indize orokorra (0 «guztiz geldi» eta 100 «hazkunde handia» izanik) hobetu egin da 2017an, 2016an hasitako hobekuntza-bidetik. Indizeak 54,3 punturaino egin du gora, 2016an baino 6 puntu gehiago. Aitzitik, sektorearen datorren urterako salmenten indizeak behera egin du 2017an, nahiz eta 61 puntutik gorako maila nabarmenari eutsi.

1. Urte bakoitzeko IV. hiruhileko datuak.

2. Eraikuntza jarduera eta etxebizitza eskaintza

etxebizitza-
eraikuntza

higiezin
eskaintzaren
prezioak

1 testuinguru
ekonomiko
orokorra

2 etxebizitza
eskaintza

3 etxebizitza
beharrak eta
eskaria

4 higiezin
merkatuaren
jarduera

5 etxebizitza
birgaikuntza

6 finantza
krisiaren
inpaktua

7 etxebizitza
politika
adierazleak

8 laburpena eta
ondorioak



Amaitutako etxebizitzaren bilakaera, tipologiaren arabera. 2000-2017



Iturria: Sustapen Ministerioa

Urtea	Burututako etxebizitzak				Urtetik urterako aldakuntza
	Etxebizitza libreak	Babes publikoko etxebizitzak	Etxebizitzak guztira	Etxebizitza babestuen %-a, guztizkoarekiko	
2000	13.266	1.796	15.062	11,9	//
2001	14.091	2.647	16.738	15,8	11,1
2002	14.974	3.129	18.103	17,3	8,2
2003	7.962	3.752	11.714	32,0	-35,3
2004	10.588	3.647	14.235	25,6	21,5
2005	11.522	4.040	15.562	26,0	9,3
2006	9.794	4.829	14.623	33,0	-6,0
2007	10.793	4.631	15.424	30,0	5,5
2008	9.083	5.000	14.083	35,5	-8,7
2009	8.782	4.672	13.454	34,7	-4,5
2010	6.409	4.991	11.400	43,8	-15,3
2011	5.851	5.473	11.324	48,3	-0,7
2012	4.757	3.835	8.592	44,6	-24,1
2013	3.994	1.772	5.766	30,7	-32,9
2014	2.560	2.239	4.799	46,7	-16,8
2015	3.611	1.925	5.536	34,8	15,4
2016	1.869	1.643	3.512	46,8	-36,9
2017	3.380	385	3.765	10,2	8,7

Iturria: Abiarazi eta burututako Etxebizitzari buruzko Azterketa (ABEA) Eusko Jaurlaritza

2.1. Etxebizitzaren eraikuntza Euskadin

- 2017an 3.765 etxebizitza burutu dira Euskadin, 2016an baino 300 etxebizitza gehiago (+% 8,7). Hazkunde hori bereziki nabarmendu behar da, 2016ko joera negatiboa aldatzea ekarri duelako. Izan ere, 2016an burututako etxebizitza kopurua % 36 murriztu eta segida historikoko kopururik txikiena erregistratu zen.
- Nolanahi ere, 2017an burututako etxebizitzaren eritimoa oso urrun dago joan den hamarkadan izandakotik: zehazki, 2017an burututako 3.765 etxebizitza horiek orduko hartan lortutako kopuruaren bosten bat baino ez dira.
- Etxebizitza libreak are portaera hobea izan dute: 2017an eraikuntza berriko 3.380 etxebizitza libre burutu dira, 2016an baino % 80 gehiago. Esan behar, halere, eritimoak gora egin arren, aurreko hamarkadan izandako eritimoaren atzetik dabilela, nabarmen, oraindik ere: 2017an eraikitako 3.380 etxebizitzak duela hamar urte eraiki zirenen heren bat baino ez dira.
- Burutu diren etxebizitza babestuen kopuruari erreparatu gero, ordea, beherakada handia izan dute 2017an. Zehazki, 385 etxebizitza babestu burutu dira, etxebizitza babestuen segida historikoaren kopururik txikiena. Etxebizitza babestuen eraikuntzan izan den beherakadaren eta etxebizitza libreen eraikuntzan izandako hazkundearen ondorioz, 2017an etxebizitza babestuek eraikuntza berri guztien aldean duten pisu erlatiboa % 10,7koa izan da, azken bi hamarkadetako txikiena.
- Halere, eraikitzen hasi diren etxebizitza-kopuruari erreparatu gero, Euskadin etxebizitza babestuen eraikuntza-jarduerak hobekuntza nabarmena izan duela ikus daiteke. 2017an 1.443 etxebizitza

2. Eraikuntza jardura eta etxebizitza eskaintza

etxebizitza-
eraikuntza

higiezin
eskaintzaren
prezioak

1 testuinguru
ekonomiko
orokorra

2 etxebizitza
eskaintza

3 etxebizitza
beharrak eta
eskaria

4 higiezin
merkatuaren
jardura


5 etxebizitzaren
birgaikuntza

6 finantza
krisiaren
inpaktua

7 etxebizitza
politika
adierazleak

8 laburpena eta
ondorioak

Burututako etxebizitza libre eta babestuen bilakaera, Lurralde Historikoen arabera. 2006-2017



Iturria: Sustapen Ministerioa

babestu berri eraikitzen hasi dira eta, horiek horrela, Estatuan abiarazitako etxebizitzaren eraikuntzan punta-puntan jarri da Euskadi, bai zenbateko absolutuei dagokionez (Madrilgo erkidegoa baino ez du aurretik), bai 1.000 biztanleko eraikitako etxebizitza babestuei dagokionez (Nafarroako Foru Erkidegoa soilik du aurretik).

- Esan behar da, ordea, bukatutako etxebizitzaren kopuruan alde handiak daudela lurralde historiko batetik bestera, hala zenbateko absolutuetan nola eraikitako etxebizitza-motari dagokionez:
 - Etxebizitza libreen eraikuntzari dagokionez, Gipuzkoak jauzi kualitatibo handia egin du 2017an, 2.000 etxebizitza libre baino gehiago eraiki baitira bertan, 2016an eraikitako bikoitza baino gehiago. Bizkaian eta Araban, aldiz, etxebizitza libre berri asko burutu diren arren, hazkundera Gipuzkoan baino txikiagoa izan da (+% 19,1 eta +% 41,7 hurrenez hurren).
 - Etxebizitza babestuen eraikuntzari erreparatuta, ordea, beherakada nabarmena egon da hiru lurraldeetan. Araban ez da inolako jarduerarik egon 2015etik aurrera; eta Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren, 2016an baino % 74,6 eta % 76,9 etxebizitza babestu gutxiago bukatu dira 2017an.

2. Eraikuntza jarduera eta etxebizitza eskaintza

etxebizitza-
eraikuntza

higiezin
eskaintzaren
prezioak

1 testuinguru
ekonomiko
orokorra

2 etxebizitza
eskaintza

3 etxebizitza
beharrak eta
eskaria

4 higiezin
merkatuaren
jarduera

5 etxebizitzaren
birgaikuntza


6 finantza
krisiaren
inpaktua

7 etxebizitza
politika
adierazleak

8 laburpena eta
ondorioak




Estatuan eta Euskadin abiarazitako etxebizitza babestuen bilakaera. 2006-2017



Iturria: Sustapen Ministerioa eta ABEA (Eusko Jaurlaritza)




Abiarazi diren etxebizitza babestuen rankinga, autonomia-erkidegoen arabera. 2017



Iturria: Sustapen Ministerioa eta ABEA (Eusko Jaurlaritza)

1.000 biztanleko abiarazitako etxebizitza babestuen kopurua, autonomia-erkidegoen arabera. 2017



2. Eraikuntza jarduera eta etxebizitza eskaintza

etxebizitza-
eraikuntza

higiezin
eskaintzaren
prezioak

1 testuinguru
ekonomiko
orokorra

2 etxebizitza
eskaintza

3 etxebizitza
beharrek eta
eskaria

4 higiezin
merkatuaren
jarduera


5 etxebizitza
birgaikuntza

6 finantza
krisiaren
inpaktua

7 etxebizitza
politika
adierazleak

8 laburpena eta
ondorioak

Euskadiko etxebizitzaren m² baliagarriaren prezioaren bilakaera, etxebizitza-motaren arabera. 2000-2017



Iturria: Higiezin eskaintza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza

Etxebizitza erabilien m² erabilgarriaren prezioa, lurralde historikoaren arabera. 2007-2017

	Etxebizitza erabiliak		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2007	3.834,6	4.490,9	4.847,1
2008	3.591,2	4.393,7	4.809,0
2009	3.550,0	3.581,7	4.686,4
2010	3.368,2	3.752,3	4.685,5
2011	3.232,8	3.766,4	4.395,3
2012	2.960,7	3.600,3	3.966,0
2013	2.713,2	3.243,3	3.420,7
2014	2.611,6	3.165,4	3.192,6
2015	2.527,2	3.017,9	3.111,5
2016	2.417,9	2.900,7	2.879,0
2017	2.329,2	2.865,7	2.756,9
2016-2017 aldea	-3,7	-1,2	-4,2
2008-2017 aldea	-35,1	-34,8	-42,7

Iturria: Higiezin eskaintza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza

	Etxebizitza libre berriak		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2007	3.834,6	4.490,9	4.847,1
2008	3.591,2	4.393,7	4.809,0
2009	3.550,0	3.581,7	4.686,4
2010	3.368,2	3.752,3	4.685,5
2011	3.232,8	3.766,4	4.395,3
2012	2.960,7	3.600,3	3.966,0
2013	2.713,2	3.243,3	3.420,7
2014	2.611,6	3.165,4	3.192,6
2015	2.527,2	3.017,9	3.111,5
2016	2.417,9	2.900,7	2.879,0
2017	2.492,6	3.286,7	3.309,1
2016-2017 aldea	-1,4	-1,4	5,1
2008-2017 aldea	-23,5	-22,4	-22,0

2.2. Higiezin eskaintzaren prezioak

- Euskadin eskaintzen den etxebizitza erabiliaren metro koadroaren batez besteko prezioak behera egin du 2017an ere, Eusko Jaurlaritzako Higiezin Eskaintzari buruzko Estatistikak emandako datuen arabera, nahiz eta beherakada oso txikia izan (-% 0,8), aurreko urteetan izan den beherakada handien aldean.
- Etxebizitza libre berriei dagokienez, ordea, metro koadroaren prezioak % 1,4 egin du gora 2017an, eta aurreko urteetako beherakaden aldean (-% 2,8 2016an), joera-aldaketa adierazten du, beraz.
- Joan den hamarkadako higiezin boomean etxebizitzek izan zuten prezio gorenaren aldean, beherakadak nabarmena izaten jarraitzen du, eta areago etxebizitza erabiliei dagokienez:
 - Etxebizitza erabilien kasuan, metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa % 34,3 merkatu da 2008tik 2017ra bitartean, eta 2.758 euro balio du batez beste.
 - Eskaintzen den etxebizitza berri librearen metro koadro erabilgarriaren prezioari dagokionez, % 20,5 merkatu da 2008tik 2017ra bitartean, eta 3.222 euro balio du batez beste.
- Etxebizitza babestuen (babes ofizialeko etxebizitzaren eta etxebizitza sozialen) metro koadro erabilgarriaren batez beste prezioak, berriz, 2016koaren antzera jarraitzen du: 1.744 euro inguru metro koadro erabilgarriak. Hartara, etxebizitza erabiliaren prezioa, pixkanaka, etxebizitza babestuaren preziora hurbildu da lurralde eta udalerrri batzuetan, batez ere tamaina txikienekoetan.

2. Eraikuntza jarduera eta etxebizitza eskaintza

etxebizitza-
eraikuntza

higiezin
eskaintzaren
prezioak

1 testuinguru
ekonomiko
orokorra

2 etxebizitza
eskaintza

3 etxebizitza
beharrak eta
eskaria

4 higiezin
merkatuaren
jarduera


5 etxebizitzaren
birgaikuntza

6 finantza
krisiaren
inpaktua

7 etxebizitza
politika
adierazleak

8 laburpena eta
ondorioak

Alokairuko etxebizitza babestuen hileko errentaren bilakaera. 2000-2017 (eurotan)



Iturria: Higiezin eskaintza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jauriaritza

Alokairuko etxebizitza librearen batez besteko errenta, lurralde historikoaren arabera. 2007-2017 (eurotan)

	Araba	Urtetik urterako aldakuntza	Bizkaia	Urtetik urterako aldakuntza	Gipuzkoa	Urtetik urterako aldakuntza
2007	908,5	4,8	875,4	10	901,5	12,3
2008	895	-1,5	968,8	10,7	1.086,50	20,5
2009	836,7	-6,5	881	-9,1	941,1	-13,4
2010	827,6	-1,1	923,8	4,9	1.004,90	6,8
2011	830,7	0,4	882,3	-4,5	993,8	-1,1
2012	790,3	-4,9	865,8	-1,9	879,7	-11,5
2013	743,9	-5,9	838,8	-3,1	821,6	-6,6
2014	729,4	-1,9	861	2,6	818,5	-0,4
2015	740,4	1,5	880,1	2,2	911,5	11,4
2016	773,8	4,5	889,4	1,1	868,6	-4,7
2017	709,7	-8,3	955,5	+7,4	1.028,0	+18,3
2008-2017 aldakuntza metatua	%-20,7		%-1,4		%-5,4	

Iturria: Higiezin eskaintza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jauriaritza

- Eskaintzen den etxebizitza erabiliaren metro koadro baliagarriaren batez besteko prezioa apur bat merkatu da 2017an hiru lurralde historikoetan.

- 2008tik 2017ra bitartean % 42 murriztu da prezioa Gipuzkoan, eta % 35 inguru Araban eta Bizkaian.
- Eskaintzen den etxebizitza berri libreen metro koadro baliagarriaren batez besteko prezioari dagokionez, ordea, nabarmen hazi da Gipuzkoan (+% 5,1), urteetan etengabe behera egin ondoren. Araban eta Bizkaian, etxebizitza berri libreen metro koadro bakoitzaren batez besteko prezioak behera egiten jarraitu du, baina oso apal: -% 1,4.
- 2008tik 2017ra bitartean, etxebizitza berri libreen metro koadro bakoitzaren batez besteko prezioak antzeko beherakada da izan du hiru lurraldeetan: % 22koa Bizkaian eta Gipuzkoan eta % 23koa Araban. Esan behar, ordea, beherakada metatu horiek etxebizitza erabilietan izandakoak baino askoz ere txikiagoak izan direla.

- Euskadiko alokairuko merkatuak garrantzi nabarmena hartu du azken urteotan, eskariak gora egin arren, eskaintza oso txikia delako oraindik ere. 2017an, alokairuan eskaini diren etxebizitzaren errentaren prezioa nabarmen hazi da Bizkaian (+% 7,4) eta batez ere Gipuzkoan (+% 18,4). Bi lurralde horietan, higiezinaren boomaren antzeko mailara heldu da eskaintzen diren etxebizitzaren batez besteko errenta. Araban, ordea, alokairuan eskaintzen diren etxebizitzaren batez besteko errenta 2008koa baino % 20 txikiagoa da oraindik ere.

3. Euskadiko etxebizitza premiak eta eskaria

lehen etxebizitzaren eskuraketa premia

aldatzeko premia

etxebizitza babestua

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza premiak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera


5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak


8 laburpena eta ondorioak

2008-2017 bi tartean lehenengo etxebizitza eskuratzeko premia eta nolabaiteko diru-sarreraren bat duten pertsonak




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza-premiei eta -eskariari buruzko estatistika (EPEI)

Etxebizitza-eskaria, eskuratzeko erregimenaren arabera, 2008-2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonak, diru-sarreraren eta errenta propioen eskuragarritasunaren arabera. 2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

3.1. Lehenengo etxebizitza eskuratzeko premia

Berrikitan kaleratu da Eusko Jaurlaritzako 2017ko Etxebizitza Premiei eta Eskariari buruzko Inkesta (EPEI). Hona hemen 2015eko edizioarekin alderatuta antzeman diren joera nagusiak:

- 2015etik 2017ra bitartean murriztu egin da diru-sarreraren bat izan arren, lehen etxebizitza eskuratzeko premia adierazi duten pertsonen kopurua: 72.836 ziren 2015ean eta 62.100 2017an. 2017an badira beste 21.982 lagun, premia hori izan arren inolako diru-sarrerarik ez dutenak.
- Lehen etxebizitza eskuratzeko premia eta horri erantzuteko diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen lotutako benetako eskariak ahula izaten jarraitzen du, 2015etik 2017ra bitartean gora egin arren. Izan ere, 2017an, emantzipatu gabe bizi diren 18 eta 44 urte bitarteko 21.014 lagunek adierazi dute lehenengo etxebizitza eskuratzeko premia eta, aldi berean eta beraien esanetan, horri erantzuteko diru-sarrera nahikoak dituztela. 2015ean, ordea, 15.000 lagunek soilik betetzen zituzten bi baldintzok.
- Diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen kolektibo horrek sortutako eskaria 14.469 etxebizitzakoa da; kopuru txikia, beraz, azterketak planteatzen duen 4 urteetako epean urteko 3.500 etxebizitzako eskaria soilik eragingo lukeelako. Gogoratu behar dugu, adibidez, 2017an 3.380 etxebizitza berri libre eraiki direla eta, gainera, lehenengo etxebizitza eskuratzeko eskariaren zati bat etxebizitza erabilietara bideratuko litzatekeela.

3. Euskadiko etxebizitza premiak eta eskaria

lehen etxebizitzaren eskuraketa premia

aldatzeko premia

etxebizitza babestua

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza premiak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jardura

5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak

8 laburpena eta ondorioak



Euskadin lehen etxebizitza eskuratzeko eskariaren bilakaera. 2015-2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza-beharrei eta -eskariari buruzko estatistika

Benetako etxebizitza-eskaria (diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen lotutakoa) 2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza-beharrei eta -eskariari buruzko estatistika

Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten familiak, eskatutako erregimenaren arabera. (%) 2017

	Diru-sarrera nahikoak	Ez nahikoak / ezegonkorak	Diru-sarrerarik gabe
Jabetzan	46,9	30,8	15,3
Alokairuan	39,9	53,5	73,6
Berdin bata zein bestea	13,3	15,7	11,1

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza-premiei eta -eskariari buruzko estatistika

- Benetako eskariaren ahultasun horren ondorioz, alokairuko etxebizitzaren eskariak gero eta garrantzi handiago hartzen du, batez ere diru-sarrera nahikorik edo inolako sarrerarik ez dutenen artean. Izan ere, lehenengo etxebizitza eskuratzeko premia dutela adierazi duten pertsonetatik % 53 eta % 73 bitartean daude egoera horretan.

3. Euskadiko etxebizitza premiak eta eskaria

lehen etxebizitzaren eskuraketa premia

aldatzeko premia

etxebizitza babestua

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza premiak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jardura

5 etxebizitzaren birgaikuntza


6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak


8 laburpena eta ondorioak




Etxebizitza aldatzeko premia duten familiak, 2005-2017



Etxebizitza aldatzeko premia duten familiak, gaur egungo bizitokiaren edukitza-erregimenaren arabera. 2017



Etxebizitza aldatzeko premia duten familiak, aldaketa egiteko arrazoiaren arabera. 2017



3.2. Etxebizitza aldatzeko premia

- Interesgarria da, halaber, etxebizitza-aldaketak ere aztertzea, halako premia-mota baita Euskadiko etxebizitza-eskariaren motor nagusietako bat.
- EPEIaren datuen arabera, 2017an hazkunde handia egon da etxebizitza aldatzeko premia adierazi duten familien kopuruan: 2015ean 53.132 familiak adierazi zuten premia hori, eta 75.970ek 2017an. Hau da, % 43ko hazkundea egon da bi urteko tartean.
- 2017an etxebizitza aldatzeko premiak izan duen hazkundeak irauli egin du 2013tik 2015era bitartean izandako joera, orduko hartan etxebizitza aldatzeko premia adierazi zuten familien kopuruak % 13,8 egin baitzuen behera.
- Esan behar da etxebizitza aldatzeko premia duten hamar familiatik bat alokairuan bizi dela gaur egun, eta soilik bik dutela jabetzako etxebizitza guztiz ordainduta. Hiru familia horietatik batek jabetzako etxebizitza du baina hipoteka ordaintzen jarraitzen du.
- Gaur egungo etxebizitza aldatzeko premiaren arrazoi nagusia tamainari lotuta dago (kasuen % 37,4). Arrazoi garrantzitsuak dira, gainera, irisgarritasun desegokia (% 14,4) eta alokairu merkeagoa aurkitzeko beharra (% 12,9).

3. Euskadiko etxebizitza premiak eta eskaria

lehen etxebizitzaren eskuraketa premia

aldatzeko premia

etxebizitza babestua

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza premiak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jardura


5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak

8 laburpena eta ondorioak

Etxebiden eskatutako etxebizitza babestuak (eskaera-espedienteak). 2005-2017




Oharra: 2005az geroztik Etxebideren etxebizitza-eskaeretatik kendu egiten dira BOEn Erregistroan alta emanda duten errentarien izenak, Bizigune Programako etxebizitzaren errentariak, eta BOEko zozketetan hautatu dituzten herritarrenak.
Iturria: Etxebide, Etxebizitzako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Etxebiden eskatutako etxebizitza babestuak (eskaera-espedienteak), eskuratzeko erregimenaren arabera. 2005-2017



Etxebideko eskaera-kopuruaren bilakaera, 2008-2017



Oharra: 2013az geroztik, Etxebiden erregistratutako herritarrek alokairu-erregimena ala salmenta-erregimena (bata ala bestea) aukeratu behar dute.
Iturria: Etxebide, Etxebizitzako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

3.3. Etxebizitza babestuaren eskaria

- 2017an nabarmen egin du gora etxebizitza babestuen eskariak: 62.515 eskaera egin dira Etxebiden, 2016an baino % 17,2 gehiago.
- Hazkunde handi hori egonkortasun-aldi baten ondoren etorri da, 2015 eta 2016 bitartean etxebizitza babestua eskuratzeko 53.000 eskaera erregistratu baitziren, ia aldaketarik gabe urtetik urtera.
 - Alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen eskaera-kopuruak % 6,5 egin zuen gora 2015ean eta % 3,6 2016an. Bien bitartean, epealdi berean nabarmen egin zuen behera erosteko etxebizitza babestuen eskaerak: -% 20 2015ean eta -% 16 2016an. Izan ere, segida historiko osoko mailarik txikiena izan zen orduan.
 - 2017ko ekitaldian, berriz, gora egin dute bai alokairuko eskariak (+% 17), bai erosteko eskariak (+% 18,2).
- Nolanahi ere, alokairuko etxebizitza babestuen eskariak hartzen du oraindik ere eskaeren zatirik handiena: 2017an Etxebiden erregistratu diren eskaera guztien % 81,9 hartzen du eskari horrek, 2016ko antzeko mailan. Etxebiden erregistratutako bost eskaeratik bat baino ez da bideratu etxebizitza erostera.
- Etxebizitza babestuen eskariak nabarmen egin du gora 2017an hiru lurralde historikoetan, baina pixka bat gehiago Gipuzkoan eta Araban (+% 19,9 Araban eta +% 20,3 Gipuzkoan), Bizkaiarekin alderatuta (+% 14,9).
- Etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera, Gipuzkoan eta Bizkaiaren eskaerak gorakada nabarmena izan dute, bai alokairuari lotutakoak, bai erostetari lotutakoak (+% 20 inguru Gipuzkoan eta +% 14-15 Bizkaiaren). Araban, aitzitik, alde handia dago etxebizitza babestua eskuratzeko hazkunde handiaren (+% 72ko hazkundera, baina esan behar da 2016an oso maila apaletik abiatu zela: 232 eskaera baino ez) eta alokairuko erregimenaren izandako hazkunde apalagoaren (+% 18) artean.

3. Euskadiko etxebizitza premiak eta eskaria

lehen etxebizitzaren eskuraketa premia

aldatzeko premia

etxebizitza babestua

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza premiak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera


5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak


8 laburpena eta ondorioak

Eskaeren bilakaera 2016tik 2017ra, eskuratzeko erregimenaren arabera




Iturria: Etxebide

Babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen-kopuruaren bilakaera, 2008-2017






* Etxebizitza babestua edota Bizigune edo ASAP programetako etxebizitza esleitzearen ondorioz Etxebiden izandako bajen bidez kalkulatuta.
Iturria: Etxebide

Urtean eskuratu diren etxebizitzaren tasaren bilakaera (urtean etxebizitza babestua eskuratu duten bizikidetzeta-unitateen kopurua Etxebiden urte horretan izan diren eskaera guztien aldean) 2008-2017



Iturria: Etxebide

Etxebideko eskariaren bilakaera 2016-2017 bitartean, eskuratzeko erregimenaren eta lurralde historikoaren arabera.



Iturria: Etxebide


4. Euskadiko higiezin eta hipoteka merkatuaren jarduera

salerosketak
EAE|Estatuan

etxebizitza
librearen prezioa


hipoteka-jarduera

Euskadiko etxebizitza-salerosketen bilakaera, etxebizitza motaren arabera. 2004-2017



Iturria: Higiezin salerosketei buruzko estatistika, Sustapen Ministerioa.

Estatuko etxebizitza-salerosketen bilakaera, etxebizitza motaren arabera. 2016-2017



Iturria: Higiezin salerosketei buruzko estatistika, Sustapen Ministerioa.

4.1. Etxebizitza salerosketaren bilakaera Euskadin eta Estatuan

- 2017an ere, aurreko urteetan antzeman den ildo positiboari eutsi dio higiezin merkatuaren jarduerak. 2017an, laugarren urtez jarraian egin du gora Euskadiko salerosketen kopuruak. Zehazki, 2016an baino % 11 gehiago izan dira eta, horri esker, 2017an 20.909 salerosketa egin dira, orain dela zortzi urtetik hona ikusi gabeko kopurua.
- Etxebizitza erabilien merkatuaren jarduerak jarraitzen du Euskadiko etxebizitza merkatua bultzatzen, aurreko urteetan ikusitakoaren ildotik. Izan ere, salerosketa gehienak halako etxebizitza izan dira: 2017an izandako salerosketa guztien % 83 (higiezin boomaren garaian, salerosketa guztien % 50 baino ez ziren).
- Izan ere, etxebizitza erabilien salerosketak baino ez dira hazi 2017an (+% 20,3). Etxebizitza berri libreen salerosketari lotutako jarduerak % 8 egin du behera, eta are gehiago etxebizitza babestuen salerosketak: -% 32. Bilakaera hori ez dator bat 2016an izandakoarekin, orduko hartan etxebizitza babestuen salerosketak ez ezik, erosketa berri libreenak ere hazi baitziren (+% 7,1).

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera

5 etxebizitza birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak

8 laburpena eta ondorioak



4. Euskadiko higiezin eta hipoteka merkatuaren jarduera

salerosketak EAE|Estatuan

etxebizitza libreaken prezioa

hipoteka-jarduera

Formalizatutako etxebizitza-salerosketen bilakaera, Lurralde Historikoen arabera. 2004-2017

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria



4 higiezin merkatuaren jarduera

5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak

8 laburpena eta ondorioak



Iturria: Higiezin salerosketen buruzko estatistika, Sustapen Ministerioa

- Etxebizitzaren salerosketen merkatuaren jardueraren hazkundera lurralde historiko guztietan gertatu da, baina alde handiak daude batetik bestera: Araban salerosketak % 23,9 hazi dira 2017an, Gipuzkoan % 13,5 eta Bizkaian % 7,6 baino ez.

4. Euskadiko higiezin eta hipoteka merkatuaren jarduera

salerosketak
EAE|Estatuan

etxebizitza
librearen prezioa

hipoteka-jarduera

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera


5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua


7 etxebizitza politika adierazleak

8 laburpena eta ondorioak

Etxebizitza erabilien metro koadro eraikiaren batez besteko prezioaren bilakaera Euskadin eta Estatuan. 2012-2017 (eurotan)



Etxebizitza erabilien metro koadroaren batez besteko prezioen rankinga, autonomia-erkidegoaren arabera. 2017 (eurotan)



Iturria: Etxebizitzaren prezioei buruzko estatistika, Sustapen Ministerioa

4.2. Etxebizitza libreen prezioaren bilakaera Euskadin eta Estatuan

- Euskadiko etxebizitza erabilien merkatuaren jardueraz hazkunderekin batera, bigarren eskuko etxebizitzaren metro koadroaren prezioak ere egin du gora, Sustapen Ministerioaren Prezioen Estatistikaren arabera. 2016 eta 2017 bitartean, etxebizitza erabilien metro koadroaren prezioak % 1,6 egin du gora Euskadin, 2016an % 1,6 behera egin zuen bitartean.
- Hiru lurralde historikoetan egin du gora etxebizitzaren prezioak, nahiz eta batetik bestera hazkundera desberdina izan. Araban izan da hazkunderik handiena (+% 4,7), eta pixka bat txikiagoa Gipuzkoan eta Bizkaian (+% 2,3 eta +% 0,5 hurrenez hurren).
- 2017an etxebizitzaren prezioa Estatuan gehiago hazi bada ere (+% 3,1), Estatuko etxebizitza erabilien preziorik altuena Euskadin dago oraindik ere (2.372 euro metro koadroa), Estatuko batezbestekotik nabarmen gora eta autonomia-erkidego gehien-gehienetatik gora (Madrilen eta Balearretan soilik dago metro koadroaren prezioa 2.000 eurotik gora).

4. Euskadiko higiezin eta hipoteka merkatuaren jarduera

salerosketak
EAE|Estatuan

etxebizitza
librearen prezioa

hipoteka-jarduera

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera


5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak


8 laburpena eta ondorioak

Etxebizitza berri librearen metro koadro eraikiaren batez besteko prezioaren bilakaera Euskadin eta Estatuan. 2012-2017 (eurotan)



* Sustapen Ministerioaren estatistikak ez du Arabako datua eskaintzen 2014, 2015 eta 2017 urteetan. Iturria: Etxebizitzaren salneurrien estatistika, Sustapen Ministerioa.

Etxebizitza berri libreen metro koadroaren batez besteko prezioen rankinga, autonomia-erkidegoaren arabera. 2017 (eurotan)



Iturria: Etxebizitzaren prezioei buruzko estatistika, Sustapen Ministerioa

- Etxebizitza erabilien batez besteko preziorik altuena Gipuzkoan dago (2.661 euro eraikitako metro koadro bakoitzeko), baina baita Bizkaian ere (2.326 euro metro koadroko, batez beste). Araban, ordea, etxebizitza erabiliaren prezioa merkeagoa da (1.925 euro metro koadroko).
- Etxebizitza berri libreen metro koadro eraiki bakoitzaren batez besteko prezioa % 2,9 garestitu da Euskadin 2017an, Gipuzkoan izandako gorakada nabarmenaren ondorioz (+% 4,9). Bizkaian, ordea, etxebizitza berri libreen prezioa % 5,9 merkatu da.
- Etxebizitza erabiliekin gertatzen den bezala, Euskadiko etxebizitza berri libreen batez besteko prezioa (2.717,8) Estatuko altuena da; Estatuko batezbestekotik (1.804 euro metro koadro bakoitzeko) nabarmen gora, nahiz eta, kasu horretan, Madrilgo erkidegoarekiko aldean (2.655 euro metro koadroko) etxebizitza erabiliena baino txikiagoa izan.

4. Euskadiko higiezin eta hipoteka merkatuaren jarduera

salerosketak
EAE|Estatuan

etxebizitza
librearen prezioa

hipoteka-jarduera

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera


5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak

8 laburpena eta ondorioak

Euskadin formalizatutako hipoteken bilakaera. 2003-2017. Zenbateko absolutuak eta urtetik urterako aldakuntza-tasak



Iturria: EIN

4.3. Hipoteka-jarduera Euskadin eta Estatuan

- Hipoteka-merkatuaren jarduerak gora egiten jarraitu du 2017an ere, nahiz eta hazkunde-erritmoa apalagoa izan. Ekitaldi horretan etxebizitzaren gaineko 16.305 hipoteka egin dira Euskadin, 2016an baino % 4,7 gehiago. 2014an XXI. mendeko segida historikoko minimoa erregistratu ondoren, 2015etik aurrera hasi den gorako joera sendotu da horrela.
- Nolanahi ere, 2017an hipoteka-merkatua zertxobait moteldu dela esan daiteke, 2015eko eta 2016ko hazkunde-tasa garrantzitsuen ondoren (+% 24,5 eta +% 9,0 hurrenez hurren).
- Era berean, eta epe luzeko begirada eginez gero, Euskadiko hipoteka-merkatuaren jarduera aurreko hamarkadan izandako datuetatik oso urrun dago. Izan ere, orduko hartan 40.000 hipoteka ere egin ziren urte bakar batean.
- Estatuarekin alderatuta, 2017an hipoteka-jarduerak hazkunde-maila apalagoa izan du Euskadin. Estatuan, hipoteka berrien kopurua % 9,0 hazi da, Euskadin izandakoen bikoitza, nahiz eta 2016arekin alderatuta, estatuan ere gorakada txikiagoa izan den (+%14,2ko hazkundea 2016an).
- Euskadin kontratatutako hipoteketan, etxebizitza bakoitzeko batez besteko zorpetze-mailak gorako joerari eutsi dio eta 133.000 euro baino altuagoa da etxebizitza bakoitzeko. 2013tik aurrera antzeman den gorako joera mantendu da, beraz (2016an baino ez zen joera hori eten). Nolanahi ere, batez besteko zorpetze maila joan den hamarkadaren erdialdean izandako maximo historikoetatik urrun dago, orduko hartan etxebizitza bakoitzeko 160.000 eurotik gorako zorpetze-maila baitzegoen.

4. Euskadiko higiezin eta hipoteka merkatuaren jarduera

salerosketak
EAE|Estatuan

etxebizitza
librearen prezioa

hipoteka-jarduera

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera

5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak


8 laburpena eta ondorioak

Estatuan eratutako hipoteken kopuruaren bilakaera. 2003-2017. Zenbateko absolutuak eta urteko urterako aldakuntza-tasak



Iturria: EIN

Etxebizitzaren gainean eratutako hipoteken batez besteko zenbatekoaren bilakaera. 2003-2017 (eurotan)



Iturria: Espainiako Jabetzen, Ondare Higiezin eta Merkataritza Ondareen Erregistrozailen Elkargoa. Higiezin Erregistroari buruzko Estatistika

- 2017an eratutako hipoteken % 74k interes-tasa aldarokorra zuen (Estatuan % 60,7 batez beste), eta gainerako % 23,3ak interes-tasa finkoa. Halatan, interes-tasak igoko balira, 2017an sinatutako hipoteka gehienek kuota hartzeko egin beharko liokete aurre. Era berean, 2017an Euskadin eratutako hipoteken batez besteko zorpetze-maila Estatukoena baino 15.000 euro handiagoa izan da (118.027 euro Estatuan).

5. Etxebizitza birgaikuntza

birgaitzeko premien kuantifikazioa

sektoreko jardueren bilakaera

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jardura


5 etxebizitza birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza politika adierazleak

8 laburpena eta ondorioak

Euskadin etxebizitza birgaitzeko premien kuantifikazioa, lurralde historikoaren arabera. 2005-2017



Iturria: Etxebizitza-premiei eta -eskariari buruzko inkesta. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Etxebizitza birgaitzeko premien kuantifikazioa, premia gauzatzeko aurreikusten den denboraren arabera. Alderaketa, 2011-2017

	2011		2013		2015		2017	
